

## JOANIKOT

## LEHEN PEREDIKUA

- 1**  
Jei honen ikustera  
Saldoan jin ziren horri  
Ibar esküin galantak  
Egiten deizü batzarri
- 2**  
Egün ixtoria berri bat  
Deizügü presentatzen  
Joanikoten bizitza  
Beiteizügü kontatzen
- 3**  
Hamaseigerren mentean  
Nabarran bizi izan zen  
Esposa Maiarekila  
Tebasen ziren egoiten
- 4**  
Güduketan zen trebea  
Kapitain famatüa  
Joanikot gerla izenaz  
Hala zen ezagütüa
- 5**  
Bena garai batean  
Ürgüilüak killikatü  
Nabarraren konkistatzen  
Beitzüan etsaia lagüntü
- 6**  
Ustez bakea zatekean  
Aski zale ohartü zen  
Lazkeria handiak  
Zirela haboro agitzen
- 7**  
Kapitain arra egin zen  
Bere hütza xüxentü nahiz  
Kastillarren kontra abiatürük  
Albretekoen alde jarriz
- 8**  
Ordü haietan Nabarran  
Bakea züzün ürria  
Hamar urtez iraüli beitzen  
Herri baten izatea
- 9**  
Errege izan nahi  
Bazüzün bat beno haboro  
Baskoak horien artean  
Besteen ametsen esklabo

## LEHEN PEREDIKUA

- 1**  
Jai honen ikustera  
saldoan jin zaren horri  
Ibarresküin galantak  
egiten dizu batzarri.
- 2**  
Egun historia berri bat  
dizugu presentatzen,  
Joanikoten bizitza  
baitizugu kontatzen.
- 3**  
Hamaseigarren mendean  
Nafarroan bizi izan zen.  
Esposa Maiarekin  
Tebasen ziren egoten.
- 4**  
Guduketan zen trebea;  
kapitain famatua.  
Joanikot gerra izenaz.  
Hala zen ezagutua.
- 5**  
Baina garai batean  
urguiluak kilikatu,  
Nafarroaren konkistatzen  
baitzuen etsaia lagundu.
- 6**  
Ustez, bakea zatekeen.  
Aski zalu ohartu zen  
lazkeria handiak  
zirela haboro agitzen.
- 7**  
Kapitain berriz egin zen  
bere hutsa zuzendu nahaiz.  
Gaztelarren kontra abiaturik,  
Albretekoen alde jarriz.
- 8**  
Ordu haietan Nafarroan  
bakea zen urria,  
hamar urtez irauli baitzen  
herri baten izatea.
- 9**  
Errege izan nahi  
bazen bat baino haboro.  
Baskoak, horien artean,  
besteen ametsen esklabo.

**saldo:** talde  
**jin:** etorri  
**batzarri:** abegi, ongietorri

**zatekeen:** izango zen  
**zalu:** arin  
**lazkeria:** ankerkeria  
**haboro:** gehiago  
**agitu:** gertatu

**haboro:** gehiago

**10**

Ordu da has gitean  
Egin dezazun orai  
Joanikoten ezagutza  
Eta Maiarena ere bai

**10**

Ordu da has gaitzen,  
egin dezazun orain  
Joanikoten ezagutza,  
eta Maiarena ere bai.

**1. JELKALDIA**

1516an, Joan Arberoakoa "Joanikot" Tebasera (Nafarroa) itzuli da, gurasoen etxera, Fernando Gaztelakoaren armadan Nafarroako konkistan parte hartu ostean.

**Oztako Maia****11**

Domingo aspaldikoa  
Plazerez hartzen zütügü  
Zurekin günüan tratüa  
Jarraiki nahi beitügü

**12**

Güdüka beltzak iganik  
Bazterrak anpletü dira  
Ferdinand dügü errege  
Orai haren meneko gira

**Domingo Bereteretx****13**

Jarraiki ditit berriak  
Ikusi ere destorbüa  
Nik orai asmoa nüke  
Tratüen arra hartzea

**Joanikot****14**

Etxera sartü berri nüke  
Güdüketan nihauk eraüntsirik  
Albako dükearekin  
Ferdinand defendatürük

**15**

Nabarra azkar t'aberats  
Etxekiko züala ümen  
Hala erranik zeikün guri  
Hala egin zeikün men

**Oztako Maia****16**

Ikusi dütügü geroztik  
Gure tratüak apürtzen  
Zü bezalako saltzaleak  
Gütiago honarat agertzen

**Belaskoko Ana****17**

Ikustera jin zitazü  
Cisneros tzakür basa  
Errege berriaren manüz  
Jauregiaren jauzaraztera

**18**

Oldar gorrin manatü diot  
Egoitez kanpokaldean  
Giltzak ez zütüala ükenen  
Bere hatz eihar zikinetan

**1. JELKALDIA****Oztako Maia****11**

Domingo, aspaldikoa,  
plazerez hartzen zaitugu,  
zurekin genuen tratua  
jarraitu nahi baitugu.

**12**

Guduka beltzak iraganik,  
bazterrak anpletu dira.  
Fernando dugu errege.  
Orain haren meneko gara.

**Domingo Bereteretx****13**

Jarraitu ditut berriak,  
ikusi ere destorbua.  
Nik orain asmoa nuke  
tratuen berriz hartzea.

**Joanikot****14**

Etxera sartu berri nauk,  
guduketan nihauk erauntsirik  
Albako dukearekin  
Fernando defendaturük.

**15**

Nafarroa azkar eta aberats  
atxikiko zuela omen.  
Hala erranik zigun guri.  
Hala egin zigun men.

**Oztako Maia****16**

Ikusi ditugu geroztik  
gure tratua apurtzen,  
zu bezalako saltzaleak  
gutiago honat agertzen.

**Belaskoko Ana****17**

Ikustera jin zait  
Cisneros txakur basa,  
errege berriaren manuz  
jauregiaren jauzaraztera.

**18**

Oldar gorrian manatu diot  
egotez kanpoaldean,  
giltzak ez zituela ukanen  
bere hatz ihar zikinetan.

**anpletu:** baretu, lasaitu**meneko:** mendeko**destorbu:** traba, oztopo**erauntsi:** eraso, borrokatu**atxiki:** gorde**jin:** etorri**basa:** basati**manu:** agindu**jauzarazi:** hutsarazi**manatu:** agindu

**Domingo Bereteretx****19**

Pena handiz ikusten dit  
Lür hontan dena agitzen  
Etxeak ebasten deitzüe  
Popülüa degoilitzen

**Rodrigo Gaspe****20**

Igorten deizküen jenteak  
Dütüzü hein apaleko  
Ebasle, auher, inütil  
Nabartarren galtzealako

**Joanikot****21**

Errege berria ustez  
Gurekin hona zatekean  
Haren manükoek aldiz  
Oro deizküe llifratzen

**Oztako Maia****22**

Orai aipatzen deiküe  
Nola Aragoiari lotü  
Hau afrontü nabarmena  
Niago ez girenez tronpatü

**23**

Zurekin tratüan hastea  
Günüke orai xedea  
Larraineko alagietarik  
Ekartez honarat behikia

**Domingo Bereteretx****24**

Hala eginen dizügü  
Bideetan bakea deno  
Aragi ekarriko dit  
Marabedien trükeko

**Domingo Bereteretx****19**

Pena handiz ikusten dut  
lur honetan dena agitzen.  
Etxeak ebasten dizkizute,  
populua degoilazten.

**Rodrigo Gaspe****20**

Igortzen dituzten jendeak  
dira hein apaleko:  
ebasle, alfer, inutil,  
nafarren galtzerako.

**Joanikot****21**

Errege berria, ustez,  
gurekin ona zatekeen.  
Haren manukoek, aldiz,  
oro dizkigute kentzen.

**Oztako Maia****22**

Orain aipatzen digute  
nola Aragoiri lotu.  
Hau afrontu nabarmena!  
Nago ez garenetz tronpatu.

**23**

Zurekin tratuan hastea  
genuke orain xedea,  
Larraineko alhagietarik  
ekartez honat behikia.

**Domingo Bereteretx****24**

Hala eginen dugu  
bideetan bakea deno.  
Haragia ekarriko dut  
marabedien trukeko.

**agitu:** gertatu  
**ebatsi:** lapurtu

**hein:** neurri  
**ebasle:** lapuru

**zatekeen:** izango zen  
**manu:** agindu

**afrontu:** irain, laido  
**nago:** galdetzen diot  
neure buruari  
**tronpatu:** nahasi, engainatu

**xede:** helburu  
**alhagia:** larre

**deno:** den bitartean

**marabedi:** diru zahar bat

**2. JELKALDIA**

1512an, Fernando Aragoikoak Nafarroa Garaia konkistatu, eta Naiarako dukea ezarri zuen erregeorde.

**Albako dukea****25**

Gure lanetan perestüki  
Bagoatza heben aitzina  
Traidore oroen hatsa  
izan artino azkena

**26**

Albreten armada oro  
Kartsüki dügü degoili  
Kapitain ta maretxalak  
Biarnorat ezkaparazi

**Cisneros kardinala****27**

Laket nük laket lür hontan  
Begie tian zainak bandan  
Galtzalearen apaltzez  
Handizki nük ni gozaten

**28**

Albreten altekoak dütük  
Kieto ixilik egonen  
Gaztelüak deitzet pinpan  
Harriz harri deseginen

**Juan Rena****29**

Armekin gainea hartürrik  
Zaizüe papoa hantzen  
Ez ahatz leialtarzüna  
Lehenik dela erosten

**Beatriz Beaumont****30**

Albreten alteko jaunak  
Biarnorat dira ezkapari  
Beren lürrak eta etxeak  
Har gintazke gük naski

**Juan Rena****31**

Bomontes ta Ripaldarrak  
Zütüegü lagün fidelak  
Har etzazü gustüan  
Etxe, soro ta kabalak

**Juana Cardona y Enriquez****32**

Renaren aholkü hona  
Dezagün orai har ildo  
Sosak erabil detzagün  
Lagüntzaleen eskertzeko

**2. JELKALDIA****Albako dukea****25**

Gure lanetan prestuki,  
bagoaz hemen aitzina,  
traidore orooren hatsa  
izan artio azkena.

**26**

Albreten armada oro  
kartsuki dugu degoilatu.  
Kapitain eta marexalak  
Biarnorat eskaparazi.

**Cisneros kardinala****27**

Laket nauk, laket, lur honetan.  
Begie tiran, zainak bandan.  
Galtzalearen apaltzez  
handizki nauk ni gozaten.

**28**

Albreten aldekoak dituk  
kieto isilik egonen.  
Gazteluak dizkiet pin-pan  
harriz harri deseginen.

**Juan Rena****29**

Armekin gaina harturik,  
zaizue papoa handitzen.  
Ez ahatz leialtasuna  
lehenik dela erosten.

**Beatriz Beaumont****30**

Albreten aldeko jaunak  
Biarnorat dira eskapatu.  
Beren lurrak eta etxeak  
har genitzake guk naski.

**Juan Rena****31**

Beaumontar eta Ripaldarrak  
zaituztegu lagun fidelak.  
Har itzazu gustuan  
etxe, soro eta kabaleak.

**Juana Cardona y Enriquez****32**

Renaren aholku ona  
dezagun orain har ildo.  
Sosak erabil ditzagun  
laguntzaileen eskertzeko.

**artio:** arte**degoilatu:** suntsitu, ezereztu**laket:** gustura  
**tiran:** samur, guri  
**bandan:** tenkatuta**papo:** papar**naski:** segurki**kabale:** abere, azienda

**33**

Eskü batekin dezagün  
Eztia goxoki heda  
Bestearekin bürdüina jo  
Zorrozteko ezpata

**Albako dukea**

**34**

Ari zitee züek manatzen  
Hartarako düzüe ganoa  
Gük artean diagü eginen  
Bazkari hon eta sanoa

**33**

Esku batekin dezagun  
eztia gozoki heda.  
Bestearekin burdina jo,  
zorrozteko ezpata.

**Albako dukea**

**34**

Ari zarete zuek manatzen.  
Hartarako duzue ganoa.  
Guk artean diagu eginen  
bazkari on eta sanoa.

**manatu:** agindu

**gano:** gaitasun, trebezia

**SATANERIA****Büljifer****35**

Ekia gorritzen hasi duk  
 Nabarrako zelüetan  
 Kastillarrak jinez geroz  
 Destorbü badük bazterretan

**Satan****36**

Albretekoak ezkapirik,  
 Biarnon dütüük kikiltürük  
 Katalina orai bera duk  
 Senarra penak akabatürük

**Büljifer****37**

Ferdinandek igorrik  
 Badük heben handinahi  
 Kastillar horien gosea  
 Beharko diagü ontsa hazi

**Satan****38**

Lan hori aisa dikiagü  
 Renaren gisako trastüekin  
 Hik emok piper eta gatz  
 Katalinaren dolüari

**SATANERIA****Buljifer****35**

Ekia gorritzen hasi duk  
 Nafarroako zeruetan.  
 Gaztelarrak jinez geroz,  
 destorbu baduk bazterretan.

**Satan****36**

Albretekoak eskapaturik,  
 Biarnon dituk kikildurik.  
 Katalina orain bera duk,  
 senarra penak akabaturik.

**Buljifer****37**

Fernandok igorrik,  
 baduk hemen handinahi.  
 Gaztelar horien gosea  
 beharko diagu ontsa hazi.

**Satan****38**

Lan hori aise dikeagu  
 Renaren gisako trasteekin.  
 Hik emaiok piper eta gatz  
 Katalinaren doluari.

**jin:** etorri**destorbu:** oztopo, traba**bera:** bakarrik**ontsa:** ongi**dikeagu:** izango diagu**traste:** bazter-nahasle

**3. JELKALDIA**

1516an, Joan Albretekoa hil, eta haren alargun Katalinak hartu zuen agintea.

**Albreteko Katalina****39**

Aragoiko erregeak  
Nabarra ebatsi diküzü  
Gibel arra bil arte  
Sü eta ke ariko nüzü

**Nafarroako Pedro****40**

Nitan konta dezakezü  
Zure maretxal leiala  
Abiatzen nitzazü arrunt  
Soldado 'ta armen bila

**Belaskoko Ana****41**

Ferdinand-en tzakür basek  
Dizküzüe etxeak hartzen  
Hontarzünak oro ebasten  
Eta tratüak baratxarazten

**Xabierko Joan Jatsu****42**

Etxea deseginik  
Hantik jin gira ezkapirik  
Zure alte bagoatza  
Ta ez dükegü etenik

**Albreteko Katalina****43**

Xabierreko gaztelüa  
Parte deizüe desegin  
Ikusten dit arazoekin  
Zidela orai kexü gorrian

**44**

Bil etzazüe lagünak  
Gurekin güdükatzera  
Ahal bezain laster beita  
Nabarra arrajinen gutara

**3. JELKALDIA****Albreteko Katalina****39**

Aragoiko erregeak  
Nafarroa ebatsi digu.  
Gibel berriz bil arte,  
su eta ke ariko naiz.

**Nafarroako Pedro****40**

Nitan konta dezakezu,  
zure marexal leiala.  
Abiatzen naitzaizu arrunt  
soldadu eta armen bila.

**Belaskoko Ana****41**

Fernandoren txakur basek  
dizkuzuete etxeak hartzen,  
ondasunak oro ebasten,  
eta tratuak baratxarazten.

**Xabierko Joan Jatsu****42**

Etxea deseginik,  
handik jin gara eskapaturik.  
Zure alde bagoaz,  
eta ez dukegu etenik.

**Albreteko Katalina****43**

Xabierreko gaztelua  
parte dizuete desegin.  
Ikusten dut arazoekin  
zaretela orain kexu gorrian.

**44**

Bil itzazue lagunak  
gurekin gudukatzera,  
ahal bezain laster baita  
Nafarroa arrajinen gutara.

**ebatsi:** lapurtu  
**gibel:** atzera, berriro

**nitán:** nigan**arrunt:** berehala**basa:** basati

**ebatsi:** lapurtu  
**baratxarazi:** motelarazi

**jin:** etorri**dukegu:** izango dugu

**arrajin:** itzuli  
**gutara:** gugana



**KANTA I**  
**1512ko konkista**

**Errepika**

Bidea har dezagün Erronkaririk Tuterara  
Martzilla, Faltzes, Peraltan gazteluak gure alte  
Sar gitean Iruñean akümüilüa aidean,  
ezpata etsaiaren golkoan  
Gibel hartüko dizügu lür honen jabegoa  
Oi Katalina kementsü zira gure eramaile

**a1**

Aragoiko erregea zenean Nabarran sartü  
Albretekoen lürretan ezpatak lantatü  
Bürdüina hotzezbürüak egotxi,  
lürak porroki

**a2**

Biarnoala aterbe bila saldoan ginen ezkapü  
Etxe eta gazteluak zeizküen bertan erraustü  
Lotsa sarrarazi beharrean  
gure ohoreaz hüstü

**KANTA I**  
**1512ko konkista**

**Errepika**

Bidea har dezagun Erronkaritik Tuterara.  
Martzilla, Faltzes, Peraltan gazteluak gure alde.  
Sar gaitezen Iruñean ukabila airean,  
ezpata etsaiaren golkoan.  
Gibel hartuko dugu lur honen jabegoa.  
Oi, Katalina, kementsu zara gure eramaile.

**a1**

Aragoiko erregea zenean Nafarroan sartu,  
Albretekoen lürretan ezpatak landatu.  
Burdina hotzez buruak egotzi,  
lurrak porrokatu.

**a2**

Biarnora aterpe bila saldoan ginen eskapatu.  
Etxe eta gazteluak zizkiguten bertan erraustu.  
Lotsa sarrarazi beharrean,  
gure ohoreaz hustu.

**gibel:** atzera, berriro

**porrokatu:** suntsitu

**saldo:** multzo, talde

**lotsa:** beldurra

**4. JELKALDIA****Joanikot****45**

Ferdinand katolikoa  
Bazterren xahatzen hasi  
Orai Moroak ere dütü  
Ezari Nabarrarik ihesi

**Oztako Maia****46**

Ahalkegabe handiusa  
Hau errege ñapürra  
Moroek eta judioek  
Zertan düe ogena

**Zalema Madexa****47**

Mahoma eta ni heben  
Lanean gütüzü aspaldian  
Berri hori entzünik ere  
Züekin egon nahian

**Joanikot****48**

Gük heben nahi zütüegü  
Ez inkieta Zalema  
Gütarrak egonen zidee  
Behar bada ere gordaxka

**49**

Animaleko hütša dit  
Egin igaran gerletan  
Errege bat arnegata  
Defendatzez güdüketan

**50**

Zer nüan ordüan gogoan  
Nolaz ote ütsü nintzan  
Kastillarren puzu beltza  
Sartzen utzi dit Nabarran

**Belaskoko Ana****51**

Aspaldixkan lagünak  
Zütüet Joan eta Maia  
Egün deizüet presentatzen  
Pedro maretxal famatüa

**Joan Jatsu****52**

Beste zonbaitekin gira  
Erresistentzian sartürük  
Katalina nausitü arte  
Erregeari bühürtürük

**4. JELKALDIA****Joanikot****45**

Fernando Katolikoa  
bazterren xahutzen hasi.  
Orain mairuak ere ditu  
ezarri Nafarroatik ihesi.

**Oztako Maia****46**

Ahalkegabe handiosa!  
Hau errege ñapurra!  
Mairuek eta judeuk  
zertan dute ogena?

**Zalema Madexa****47**

Mahoma eta ni hemen  
lanean gara aspaldian,  
berri hori entzunik ere  
zuekin egon nahian.

**Joanikot****48**

Guk hemen nahi zaituztegu;  
ez inkieta, Zalema.  
Gutarrak egonen zarete,  
behar bada ere gordeka.

**49**

Alimaleko hutsa dut  
egin iragan gerretan,  
errege bat, arnegatua,  
defendatzez güduketan.

**50**

Zer nuen orduan gogoan?  
Nolaz ote itsu nintzen?  
Gaztelarren pozoi beltza  
sartzen utzi dut Nafarroan.

**Belaskoko Ana****51**

Aspaldiko lagunak,  
Zutuet, Joan eta Maia,  
egun dizuet presentatzen  
Pedro marexal famatua.

**Joan Jatsu****52**

Beste zenbaitekin gara  
erresistentzian sarturük.  
Katalina nagusitu arte,  
erregeari bihurturük.

**xahutu:** garbitu**ahalkegabe:** lotsagabe  
**ñapur:** usurpatzaile**ogen:** erru**gordeka:** ezkutuan**alimaleko:** izugarri handi**arnegatu:** norbere balioei  
uko egin**bihurtu:** aurre egin

**Nafarroako Pedro****53**

Foix-koen alteko gira  
Gogo ta bihotz emanik  
Ferdinand zezen gaitzari  
Koroa ikusiko elkirik

**Joanikot****54**

Soldado zainhartak züek  
Zoazte baratx, zer ote  
Zer deiküzüe ekarten  
Hitzemaiten odol hüste

**55**

Badiat ingointi eginik  
Batailla ta gerla aski  
Orai ezpata zoroan  
Laketago nük laxüki

**Mauleko Elisabet****56**

Züen ezinegona  
Ont saxko dit konprenitzen  
Egün dügün bake hau  
Beltza beita agertzen

**Oztako Maia****57**

Hala badüzüe nahi  
Gerla bideetan zoazte  
Bena züen aharretarik  
Gü kanpo üt z gitzazüe

**Albretoko Henri****58**

Abiatzen gira ordüan  
Bide horietan barna  
Etsaiari бүрү eginez  
Peko Nabarrarik gora

**Nafarroako Pedro****59**

Bildüko dit saldoa  
Biarno eta Xiberoan  
Abiatüko niz Garazirik  
Izabarat orai goatzan

**Albretoko Katalina****60**

Elürra hor da orano  
Uste günüan beno haboro  
Gaitz dikiagü igaraitea  
Erronkarira heltzeko

**Nafarroako Pedro****53**

Foixkoen aldeko gara,  
gogo eta bihotz emanik.  
Fernando zezen gaitzari  
koroa ikusiko ilkirik.

**Joanikot****54**

Soldadu zainartak zuek.  
Zoazte baratxe, zer ote!  
Zer diguzue ekartzen?  
Hitz ematen odol-huste?

**55**

Badiat engoitik eginik  
batailla eta gerla aski.  
Orain, ezpata zoroan  
laketago nauk laxoki.

**Mauleko Elisabet****56**

Zuen ezinegona  
ont saxko dut konprenitzen,  
egun dugun bake hau  
beltza baita agertzen.

**Oztako Maia****57**

Hala baduzue nahi,  
gerra-bideetan zoazte,  
baina zuen aharretarik  
gu kanpo utz gaitzazue.

**Albretoko Henri****58**

Abiatzen gara orduan  
bide horietan barna,  
etsaiari buru eginez  
Baxenabarretik gora.

**Nafarroako Pedro****59**

Bilduko dut saldoa  
Biarno eta Xiberoan.  
Abiatuko naiz Garazitik.  
Izabarat orain goazen.

**Albretoko Katalina****60**

Elurra hor da oraino,  
uste genuen baino haboro.  
Gaitz dikeagu iragatea  
Erronkarira heltzeko.

**ilki:** kendu**zainart:** kementsu, indartsu  
**baratxe:** astiro**engoitik:** dagoeneko**laket:** eroso, gustura  
**laxoki:** segur aski, ziurrenik**ont saxko:** ondotxo**aharra:** liskar**saldo:** talde**oraino:** oraindik  
**haboro:** gehiago  
**dikeagu:** izango diagu

**SATANERIA****Büljifer****61**

Katalinaren mina  
Aisa diñagü harroarazi  
Abiatü zigün ziuntan  
Negüa delarik ontsa hazi

**Satan****62**

Bortü maxela horietan  
Buhatüko dieñat hotza  
Bidea neke dikiñe  
Eta güdüka motza

**Büljifer****63**

Dolütüko zien segürrik  
Kastillarrer egin afrontüa  
Peko Nabarrako Baskoek  
Dikiñe latz arrapostüa

**Satan****64**

Akilimarroren besta  
Düken herri horietan  
Hilotzen kiño karatsa  
Zabal bedi herrietan

**SATANERIA****Buljifer****61**

Katalinaren mina  
aise dinagu harroarazi.  
Abiatu zitzaigun ziuntan,  
negua delarik ontsa hazi.

**Satan****62**

Bortu-mazela horietan  
buhatuko zienat hotza.  
Bidea neke diketen,  
eta guduka motza.

**Buljifer****63**

Dolutuko zaien, segurik,  
gaztelarrei egin afruntua.  
Baxenabarreko baskoek  
diketen latz arrapostua.

**Satan****64**

Akilimarroren besta  
duken herri horietan.  
Hilotzen kino karatsa  
zabal bedi herrietan.

**ziunta:** presa  
**ontsa:** ongi

**bortu:** mendi  
**mazela:** hegi  
**buhatu:** putz egin  
**diketen:** izango diton

**dolutu:** damutu  
**afruntu:** laido, irain  
**diketen:** izango diton  
**arrapostu:** erantzun

**akilimarro:** deabru, satan  
**duken:** izango dun  
**kino:** usain txar, kirats  
**karats:** garratz

**5. JELKALDIA****Albako dukea****65**

Gogor düzü kaskoa  
 Katalina galtzalea  
 Lür honi lotzen zitzaio  
 Lakasta eihar bat bezala

**Juana Cardona y Enriquez****66**

Nabarrako Baskoak zaitzü  
 Gibeletik horra ter ter  
 Bena ezariko zütüegü  
 Gure lürretan bazter

**Antonio Aroztegi****67**

Orai armagabetürrik  
 Bürüa zaüzüe apaltüren  
 Erreboltalako ganoa  
 Hura aldiz antzütüren

**Naiarako dukea****68**

Tzakür mehe herroka hau  
 Izanen errigei bidean  
 Gorde etzazüe itzalean  
 Atienzako presontegian

**Juan Rena****69**

Erremestiatzen zütüegü  
 Gure soldado baliosak  
 Har etzazüe laxüki  
 Horien etxe eta lürak

**5. JELKALDIA****Albako dukea****65**

Gogor duzu kaskoa,  
 Katalina galtzailea.  
 Lur honi lotzen zatzaizkio  
 lakasta ihar bat bezala.

**Juana Cardona y Enriquez****66**

Nafarroako baskoak zaizkizu  
 gibeletik horra ter-ter,  
 baina ezariko zaituztegu  
 gure lurretan bazter.

**Antonio Aroztegi****67**

Orain armagabeturik,  
 burua zaizue apalduko.  
 Erreboltarako gano  
 hura, aldiz, antzutuko.

**Naiarako dukea****68**

Txakur mehe herronka hau  
 izanen irrigai bidean.  
 Gorde itzazue itzalean,  
 Atienzako presondegian.

**Juan Rena****69**

Erremerziatzen zaituztegu,  
 gure soldadu baliosak.  
 Har itzazue laxoki  
 horien etxe eta lurrak.

**kasko:** buru**lakasta:** kapar, lakain**horra izan:** etorri**gibel:** atze**ter-ter:** ilaran**gano:** gogo**herronka:** ilara, lerro**erremerziatu:** eskertu**balios:** baliotsu**laxoki:** libreki, nahieran

## KANTA II

### Gaztelako jaunttoak

#### b1

Ostiraletan düzü Garrüzen merkatü  
Ardiak saldü eta behiak markatü  
Hemen agitü dena ezin da parkatü  
Gure bizi xümea deiküe suntsitü

#### b2

Kastillako jauntxoak, oi kasta noblia  
Odol ixurle eta gerla egilea  
Amiküzeko funtsak ederki balia  
Laster etorriko da zihaturen aldia

#### b3

Errege, printze, düke, baro edo markes  
Handi izanik ere joanen egün batez  
Hitzemanak zeizküen bake eta babes  
Garrüzen da ondikotz agitü aldrebes

#### b4

Garrüze eta Alep, Belfast edo Bangi  
Iraganaz ez dügü deüs ere ikasi  
Ülünaren artetik ba ote da argi  
Gure hurrek nahi düe bakea ikusi

#### Errepika

Landan eder arrosa üdaberrietan  
Aurten ez da lilitü Garrüze altean  
Gure itxaropena joan düe sütan  
Negüa lüzatü da gure zaurietan

## KANTA II

### Gaztelako jaunttoak

#### b1

Ostiraletan duzu Garrüzen merkatu.  
Ardiak saldu, eta behiak markatu.  
Hemen agitu dena ezin da barkatu.  
Gure bizi xumea digute suntsitu.

**agitu:** gertatu

#### b2

Gaztelako jauntxoak, oi kasta noblea,  
Odol-isurle eta gerra-egilea,  
Amikuzeko funtsak ederki balia.  
Laster etorriko da zuihauen aldia.

**zuihauen:** zeuen

#### b3

Errege, printze, duke, baroi edo markes.  
Handi izanik ere, joanen egun batez.  
Hitz emanak zizkiguten bake eta babes.  
Garrüzen da, ondikoz, agitu aldrebes.

**ondikoz:** alajaina  
**agitu:** gertatu

#### b4

Garrüze eta Alepo, Belfast edo Bangi.  
Iraganaz ez dugu deus ere ikasi.  
Ilunaren artetik ba ote da argi?  
Gure hurrek nahi dute bakea ikusi.

#### Errepika

Landan, eder arrosa udaberrietan.  
Aurten ez da lilitu Garrüze aldean.  
Gure itxaropena joan dute sutan.  
Negua luzatu da gure zaurietan.

**joan:** eraman

**6. JELKALDIA****Mauleko Karlos****70**

Berri txarrak dütüt ekarten  
Izabako güdukatik  
Pedro eta kapitainak  
Beitira preso sartürik  
L

**Mikel Jatsu****71**

Karlos erregearen manüz  
Gaztelüa dügü galtzen  
Maiestate-damü horrez  
Gütü orai aküsätzen

**Oztako Maia****72**

Graxana izan beitzira  
Lanarentako bideetan  
Zer ikasi düzü ote  
Larrainerik honakoan

**Graxana Iribarren****73**

Ikusi dütüt Garazin  
Kastillarrak ebasten  
Garrüzeko gaztelüa  
Eta herriaren suntsitzen

**Joanikot****74**

Holako basakeriek  
Merexi düe ihardespen  
Ez niz egonen kieto so  
Lazkeria delarik agitzen

**75**

Azken gerletan nintzan ni  
Ütsüki alde ztronpatü  
Ene hüts parka ezina  
Behar dit orai xüxentü

**Mauleko Karlos****76**

Honki jina dikeagü  
Hire süstengüa egün  
Katalina hil ondoko  
Bere seme Henriren lagün

**Joanikot****77**

Karlos ta Mikel züekin  
Horra nük bideetan gainti  
Soldado atorrak jauntsi  
Ta'abia gitean adi

**6. JELKALDIA****Mauleko Karlos****70**

Berri txarrak ditut ekartzen  
Izabako gudukatik,  
Pedro eta kapitainak  
baitira preso sarturik.

**Mikel Jatsu****71**

Karlos erregearen manuz,  
gaztelua dugu galtzen.  
Maiestate-damu horrez  
gaitu orain akusatzen.

**Oztako Maia****72**

Graxana, izan baitzara  
lanarendako bideetan,  
zer ikasi duzu ote  
Larrinetik honakoan?

**Graxana Iribarren****73**

Ikusi ditut Garazin  
gaztelarrak ebasten.  
Garrüzeko gaztelua  
eta herriaren suntsitzen.

**Joanikot****74**

Horrelako basakeriek  
merezi dute ihardespen.  
Ez naiz egonen kieto so,  
lazkeria delarik agitzen.

**75**

Azken gerretan nintzen ni  
itsuki alde ztronpatu.  
Ene huts barkaezina  
behar dut orain zuzendu.

**Mauleko Karlos****76**

Ongijina dikeagu  
hire sostengua egun.  
Katalina hil ondoko,  
bere seme Henriren lagun.

**Joanikot****77**

Karlos eta Mikel, zuekin  
horra nauk bideetan gaindi.  
Soldadu-atorrak jantzi,  
eta abia gaitezen adi.

**manu:** agindu**damu:** kalte**ihardespen:** erantzun**agitu:** gertatu**tronpatu:** nahasi, erratu**ongijin:** ongiatorri**dikeagu:** izango diagu**horra izan:** etorri

**78**

Ützirik nüan orozbako  
Ene kapitain izena  
Bihoa berriz bidetan  
"Joanikot"en fama gaitza

**79**

Aineza gal bizia, goiz batez,  
Iskillüdün, ixil eta zütik  
Güdüan, lür zahar honen maitez,  
Mendietan etsaien eskütik

**Oro**

Biba Joanikot kapitaina!

**78**

Utzirik nuen orozbakoz  
ene kapitain izena.  
Bihoa berriz bideetan  
Joanikoten fama gaitza.

**79**

Aineza gal bizia goiz batez,  
iskiludun, isil eta zutik,  
guduan, lur zahar honen maitez,  
mendietan etsaien eskutik.

**Oro**

Biba Joanikot kapitaina!

**orozbakoz:** betiko

**gaitz:** handi

**aineza gal:** nahi nuke galdu

**iskilu:** arma



**KANTA III****Zorte basaren legea****Biak****c1**

Zorte basaren legeak  
 dunda ekarten düanean  
 Nor den baratüko lürrean  
 nor altxatüko aitzina  
 Hür handietan bagoatzü harat  
 norat ezin jakin  
 Aize bühakaden haidürü egon  
 Ala itsaso ertzoari oldartü

**Maia****c2**

Oi ene Joan, nik nolaz nüan sinetsi  
 Nolaz ote nütüan maitatü,  
 hire ürgüilüzko balentia hurak  
 Mesfidantzarik gabe jarraiki hüntüdan,  
 azkena zateala uste nüan  
 Zain llabürreko promesa hütsta  
 ta hura gure bide antzúa

**Joanikot****c3**

Oi ene Maia, nik nolaz nüan sinetsi  
 Nolaz ote nütüan maitatü,  
 Albako dükearen gerla mezüak  
 Ahaide goxoak zütützün enetako,  
 ezti ezteki emanik  
 Zain llabürreko gezür ejerrenak,  
 hura gire bide antzúa

**Biak**

Zorte basaren legeak  
 dunda ekarten düanean  
 Nor den baratüko lürrean  
 nor altxatüko aitzina  
 Hur handietan bagoatzü  
 harat norat ezin jakin  
 Aize buhakaden haidürü egon  
 Ala itsaso ertzoari oldartü

**KANTA III****Zorte basaren legea****Biak****c1**

Zorte basaren legeak  
 dunda ekartzen duanean,  
 nor da baratuko lurrean?  
 Nor altxatuko aitzina?  
 Ur handietan bagoaz harat,  
 norat ezin jakin.  
 Haize buhaden aiduru egon,  
 ala itsaso ertzoari oldartu.

**Maia****c2**

Oi, ene Joan, nik nolaz nuen sinetsi?  
 Nolaz ote nituen maitatu  
 hire urguiluzko balentria haiek?  
 Mesfidantzarik gabe jarraiki hindudan.  
 Azkena zatekeela uste nuen.  
 Zain llaburreko promesa hutsa,  
 eta hura gure bide antzua.

**Joanikot****c3**

Oi, ene Maia, nik nolaz nuen sinetsi?  
 Nolaz ote nituen maitatu  
 Albako dukearen gerra-mezuak?  
 Ahaire gozoak ziren enetako,  
 ezti-eztiki emanik.  
 Zain llaburreko gezur ederrenak,  
 hura gure bide antzua.

**Biak**

Zorte basaren legeak  
 dunda ekartzen duanean,  
 nor da baratuko lurrean?  
 Nor altxatuko aitzina?  
 Ur handietan bagoaz harat,  
 norat ezin jakin.  
 Haize buhaden aiduru egon,  
 ala itsaso ertzoari oldartu.

**basa:** basati  
**dunda:** eztanda, gerra  
**baratu:** geratu  
**aitzina:** aurrera

**buhada:** putzada, bolada  
**aiduru:** zain  
**ertzo:** zoro, ero

**zatekeela:** izango zela

**ahaire:** doinu

**basa:** basati  
**dunda:** eztanda, gerra  
**baratu:** geratu  
**aitzina:** aurrera

**buhada:** putzada, bolada  
**aiduru:** zain  
**ertzo:** zoro, ero

**7. JELKALDIA****Naiarako dukea****80**

Izentatü berri naüe  
Nabarrako erregeordari  
Gisala Juan higanik diat  
Ikasiko nola ari

**Maria Aroztegi****81**

Haxeri fia hiz gure Juan  
Ikusi diat nola ari hizan  
Jentearen bailakutzen  
Ta gibeletik kixkiltzen

**Juan Rena****82**

Nik maite dit manatzea  
Beste jenteen ttipitzea  
Beti üken dezen gogoan  
Eni plazer ekartea

**83**

Jin berri diren Kastillarrer  
Gora etzezüe soldatak  
'ta Nabarrako korteetan  
Emetzüe kargü gorak

**Villalba****84**

Albretekoen aldekoak  
Ditiagü kanpo ezari  
Haietan bürüa gora düanik  
Ez dük haboro ageri

**Juan Rena****85**

Graxian to zortzi dükado  
Hire lanaz eskertzeko  
Beitük mezülari trebatü  
Ta presoner hartü Pedro

**Beltraneko Aluzia****86**

Aroztegi jauna jakin dit  
Zük gütüzüla lagüntü  
Erronkariko nabatik  
Soldado zombait gehitü

**Naiarako dukea****87**

Karlos errege handiari  
Idatziko deiot bertan  
Deiogüla etxekiren  
Nabarra ere inperioan

**7. JELKALDIA****Naiarako dukea****80**

Izendatu berri naute  
Nafarroako erregeordari.  
Gisala, Juan, higandik diat  
ikasiko nola ari.

**Maria Aroztegi****81**

Azeri fia haiz, gure Juan.  
Ikusi diat nola ari haizen  
jendearen balakutzen  
eta gibeletik kiskiltzen.

**Juan Rena****82**

Nik maite dut manatzea,  
beste jendeen ttipitzea,  
beti ukan dezaten gogoan  
eni plazer ekartzea.

**83**

Jin berri diren gaztelarrei  
gora iezazkiezue soldatak,  
eta Nafarroako gorteetan  
emaizkiezue kargu gorak.

**Villalba****84**

Albretekoen aldekoak  
ditiagu kanpo ezarri.  
Haietan burua gora duenik  
ez duk haboro ageri.

**Juan Rena****85**

Graxian, to zortzi dukat  
hire lanaz eskertzeko,  
baituk mezulari trebatu,  
eta preso hartu Pedro.

**Beltraneko Aluzia****86**

Aroztegi jauna, jakin dut  
zuk gaituzula lagundu,  
Erronkariko nabatik  
soldadu zenbait gehitu.

**Naiarako dukea****87**

Karlos errege handiari  
idatziko diot bertan,  
diogula atxikiko  
Nafarroa ere inperioan.

**erregeordari:** erregeorde  
**gisala:** dirudienez

**fia:** arin eta isil

**balakatu:** lausengatu  
**kiskildu:** doilorki jokatu

**manatu:** agindu  
**ttipitu:** txikitu, apaldu

**jin:** etorri

**gora:** altu

**haboro:** gehiago

**dukat:** antzinako dirua

**naba:** zelai

**bertan:** oraintxe

**KANTA IV**  
**Gure bakea**

**d1**

Sosa, laidoak bailakatü eta kixkiltü  
Meneko izan ditean, ohargabean  
Ümil, ttipi, ahül eta ahalke  
Etxeak errauts, beren lenguaiea zokotürük  
Ümil, ttipi, ahül eta ahalke  
Baskoa hala denean gü gira laket  
Ümil, ttipi, ahül eta ahalke  
Baskoa hala denean da gure bake

**KANTA IV**  
**Gure bakea**

**d1**

Sosa, laidoak. Balakatu eta kiskildu,  
mendeko izan daitezen oharkabean.  
Umil, ttipi, ahul eta ahalke.  
Etxeak errauts, beren lengoaia zokoraturik.  
Umil, ttipi, ahul eta ahalke.  
Baskoa hala denean. gu gara laket.  
Umil, ttipi, ahul eta ahalke.  
Baskoa hala denean da gure bake.

**sos:** diru

**laido:** irain

**balakatu:** lausengatu

**kiskildu:** doilorki jokatu

**ahalke:** lotsaturik

**laket izan:** gustura egon

**SATANERIA****Büljifer****88**

Nabarran heltü berri  
Aisa ziek hantzen papoa  
Ase bite ardu gorriz  
Mitil düeno Baskoa

**Satan****89**

Manazale bat ejerra  
Kausitü diagü hentako  
Rena jaunak abilki dik  
Bere jentea erabiliko

**Büljifer****90**

Egiaren erraiteko  
Maitagarri dütüK Kastillarrak  
Baskoen kontrako mespretxuak  
Ditik handi garrak

**Satan****91**

Ber zoinean Frantsesak  
Behar gintikek harroarazi  
Errege aüzoen artean  
Lehia bat gaitza abiarazi

**Büljifer****92**

Hala hala Baskoen lürrak  
Dütükek bien arteko tratü  
Batak tira besteak tira  
Erdiratü beharko ditiagü

**SATANERIA****Buljifer****88**

Nafarroan heldu berri,  
aise zaiek handitzen papoa.  
Ase bitez ardo gorriz  
mutil dueno baskoa.

**Satan****89**

Manatzaile bat ederra  
kausitu diagu haiendako.  
Rena jaunak abilki dik  
bere jentea erabiliko.

**Buljifer****90**

Egiaren errateko,  
maitagarri dituk gaztelarrak.  
Baskoen kontrako mespretxuak  
ditik handi garroak.

**Satan****91**

Ber zoinean, frantsesak  
behar genitzkek harroarazi.  
Errege auzoen artean  
lehia bat gaitza abiarazi.

**Buljifer****92**

Hala-hala baskoen lurrak  
dituzkek bien arteko tratü.  
Batak tira, besteak tira,  
erdiratu beharko ditiagu.

**papo:** sabel, tripa  
**mutil:** morroi, zerbitzari  
**dueno:** duen bitartean

**manatzaile:** agintari  
**kausitu:** aurkitu

**garro:** erro

**ber zoinean:** era berean

**gaitz:** handi

**dituzkek:** izango dituk

**8. JELKALDIA**

1519 eta 1521 artean, Gaztelako hainbat herritan, komuneroak altxatu ziren Karlos I.a erregearen aurka

**Oztako Maia****93**

Etkezain baratzen nüzü  
Joan gerlala abiatürük  
Gure gain badizügü lan  
Nahi badügü indartürük

**94**

Karrikan ager zitee  
Bürüa apal ta xintxoak  
Aldiz etxe barne hontan  
Libra bite mintzoak

**Gexan****95**

Aitak arduka igorririk  
Hori ginizün estakürüa  
Eraizerik horra gütüzü  
Adiskideen berriekila

**Maddia****96**

Joan ari düzü lanetan  
Han hor soldado bildürük  
Armen igaraiteko bideak  
Bortüan ontsa atzamanik

**Milia****97**

Hasi gütüzü gü josten  
Oihal zabalen pean ditean  
Armak igaran gordaxka  
Üdüri onddoa zahopean

**Lakarrako Aña****98**

Kastillarren soldadoak  
Hara honakan bortüetan  
Salbaje hütsak dütüzü  
Bortitzak ere gurekilan

**Oztako Maia****99**

Nahiago nütüke ikusi  
Bultre zikin horik mokoka  
Beste lür zoko batetan  
Heben beno guri joka

**Anuntxi bardoa****100**

Toledon, Valladoliden  
Preseski nik ikusi ditit  
Han üdüriala ahültzen  
Comuneros-ek irauzirik

**8. JELKALDIA****Oztako Maia****93**

Etkezain baratzen naiz,  
Joan gerrara abiatürük.  
Gure gain badugu lan,  
nahi badugu indartürük.

**94**

Karrikan ager zaitezte  
burua apal eta zintzoak.  
Aldiz, etxe barne honetan  
libra bitez mintzoak.

**Gexan****95**

Aitak ardoka igorririk,  
hori genuen estakurua.  
Eraizetik horra gara  
adiskideen berriekin.

**Maddia****96**

Joan ari da lanetan,  
han-hor soldadu bildurik,  
armen iragateko bideak  
bortuan ontsa atzemanik.

**Milia****97**

Hasi gara gu josten,  
oihal zabalen pean daitezen  
armak iragan gordeka,  
iduri onddoa zahopean.

**Lakarrako Ana****98**

Gaztelarren soldaduak  
hara-honaka bortuetan.  
Salbai hutsak dira,  
bortitzak ere gurekin.

**Oztako Maia****99**

Nahiago nituzke ikusi  
putre zikin horiek mokoka  
beste lur-zoko batean,  
hemen baino gu joka.

**Anuntxi bardoa****100**

Toledon, Valladoliden,  
preseski nik ikusi ditut.  
Han, irudira, ahultzen  
komuneroek erauzirik.

**baratu:** geratu**mintzo:** hitz

**ardoka:** ardo bila  
**igorri:** bidali  
**estakuru:** aitzakia  
**horra izan:** etorri

**iragan:** igaro  
**bortu:** mendi

**iduri (du):** dirudi (= bezala)  
**zaho:** belar

**bortu:** mendi  
**salbai:** basati

**preseski:** hain zuzen  
**irudira:** antza, dirudienez

**Oztako Maia**

**101**

Orai düzü momentoa  
Etsaiaren tinkatzeko  
Zoazte fite erraitera  
Has ditean gerlan agüdo

**Oztako Maia**

**101**

Orain da mementoa  
etsaiaren tinkatzeko.  
Zoazte fite erraitera  
has daitezen gerran agudo.

**memento:** une  
**tinkatu:** harrapatu, atzeman  
**fite:** arin

**9. JELKALDIA****Joanikot  
102**

Biarnoko lür anpleetan  
Egün alkartatzen gira  
Hebentik beita prestatzen  
Ümen gure erreboilta

**Etxauzeko Iñigo  
103**

Hire ikustez botzik nük  
Joanikot gerla gizona  
Hi bezalakoak bildüz  
Dikiagü armada hona

**Albreteko Henri  
104**

Albretekoen izena  
Düzüe gora ekarriko  
Kastillaren koroa llerdena  
Jar dezagün bürüz piko

**Asparrotz jenerala  
105**

Ene arreba Frantxesa  
Zütan dügü fidantzia  
Frantziako erregearen  
Kide hüilana beitzira

**Foixko Frantxesa  
106**

François Lehena erregeak  
Lagüntza dizü ekarriko  
Arma ta zaldi korrazatüak  
Frantziarik igorriko

**Joanikot  
107**

Behar güntüzke iskillüak  
Hedatü Nabarran barna  
Banoazü bertan perestüki  
Bortüetan lagün bila

**108**

Aineza gal bizia, goiz batez  
Iskillüdün, ixil eta zütik  
Güdüan, lür zahar honen maitez  
Mendietan etsaien eskütik

**9. JELKALDIA****Joanikot  
102**

Biarnoko lur anpleetan  
egun elkartzen gara,  
hemendik baita prestatzen,  
omen, gure errebolta.

**Etxauzeko Inigo  
103**

Hire ikustez pozik nauk,  
Joanikot gerra-gizona.  
Hi bezalakoak bilduz  
dikeagu armada ona.

**Albreteko Henri  
104**

Albretekoen izena  
duzue gora ekarriko.  
Gaztelaren koroa lerdena  
jar dezagun buruz piko.

**Asparrotz jenerala  
105**

Ene arreba Frantxesa,  
zutan dugu fidantzia,  
Frantziako erregearen  
kide hullana baitzara.

**Foixko Frantxesa  
106**

Frantzisko Lehena erregeak  
laguntza dizu ekarriko.  
Arma eta zaldi korazatuak  
Frantziatik igorriko.

**Joanikot  
107**

Behar genituzke iskiluak  
hedatu Nafarroan barna.  
Banoa bertan prestuki  
bortuetan lagun bila.

**108**

Aineza gal bizia goiz batez,  
iskiludun, isil eta zutik,  
guduan, lur zahar honen maitez,  
mendietan etsaien eskütik.

**anple:** zabal**dikeagu:** izango diagu**buruz piko:** buruz behera**fidantzia:** uste ona**hullan:** hurbil**igorri:** bidali**iskilu:** arma**bertan:** oraintxe**bortu:** mendi**aineza gal:** nahi nuke galdu**iskilu:** arma

**10. JELKALDIA**

Bost artzain Eraizen

**Joanikot****109**

Bortü honen maxelan  
Egün zütüet edireiten  
Lagüngo galtatzera  
Nitzaizüe xüxen jiten

**110**

Oilar gaxto kente bat  
Handi nahi da Nabarran  
Gure bürüen defendatzen  
Girade sartü gerlan

**Oxa Hegabürü****111**

Kastillarrak izan dütük  
Gure bortüetan jada  
Galtegin gabe zerbütü  
Bortxaz hartü beren hatüa

**Elena Ordanolet****112**

Soldado triste zikinak  
Egon dütük ola hontan  
Batean oihü eta tü  
Bestean lürrean bilaskan

**Dominixe Kamitxel****113**

Joanikot hire fama  
Gük günüan ezagüna  
Gerla honen irabazteko  
Gütükek hire kidea

**10. JELKALDIA****Joanikot****109**

Bortu honen mazelan  
egun zaituztet edireten.  
Lagungoa galdatzera  
natzaizue zuzen jiten.

**110**

Oilar gaizto jende bat  
handinahi da Nafarroan.  
Geure buruen defendatzen  
gara sartu gerran.

**Oxa Hegaburu****111**

Gaztelarrak izan dituk  
gure bortuetan jada.  
Galdegin gabe zerbitzu,  
bortxaz hartu beren hatua.

**Elena Ordanolet****112**

Soldadu triste zikinak  
egon dituk ola honetan.  
Batean oihu eta tu,  
bestean lurrean bilaxkan.

**Dominixe Kamitxel****113**

Joanikot, hire fama  
guk genian ezaguna.  
Gerra honen irabazteko,  
gaituzkek hire kidea.

**bortu-mazela:** mendi-hegi  
**ediren:** aurkitu  
**lagungo:** laguntza  
**galdatu:** eskatu  
**jin:** etorri

**jende:** klase

**galdegin:** eskatu  
**hatu:** hornigaiak

**ola:** borda**bilaxka:** borroka**gaituzkek:** izango gaituk



**KANTA V****Eraizen, bazterrak oro haize****e1**

Sasoak jiten, sasoak joaiten  
 Bortü hauetan gira bizitzen  
 Igaile franko dügü ikusten  
 Zonbait, malürrak dütü pusatzen  
 Biziak higatürik, iheska  
 Aterbea gozatzen ebaska  
 Borogatzen beit dira noiztenka  
 Ahapetik nigarrez hipaka

**e2**

Etxe erretzen, odol ixurten  
 Tiro ütsüek arimak hiltzen  
 Bihotz gabeek lotsa sarra(ra)zten  
 Jaunttoen manüz herra hedatzen  
 Poderez gose dena(r)i oldarra  
 Libertatean bide bakarra  
 Jentetarzüna, dügü indarra  
 Bakeak aldiz denen beharra

**e3**

Üdak ekarten bero saminak  
 Hondarribiko arotz lagunak  
 Klixki klaxka jo, armeen bürdüinak  
 Mendeküko prest gira artzainak  
 Erronkariko oihanen barna  
 Eraik dezagün alkartzarzüna  
 Züzentarzüna zaintüz aitzina  
 Libreki bizitzeko artzaina

**Errepika**

Eraizen bazterrak oro aize  
 Arroka artean da hainbat leize  
 Armeek beharrez, han gordagia  
 Anaiek dükezüe igangia  
 Altxa perttika, eman indarra  
 Berriz jarteko lege zaharra  
 Irus bizi bedi artzaina  
 Betikotz aizea bezain libre

**KANTA V****Eraizen, bazterrak oro haize****e1**

Sasoiak jiten, sasoiak joaten,  
 bortu hauetan gara bizitzen.  
 Igotzaile franko dugu ikusten.  
 Zenbait malurak ditu pusatzen.  
 Biziak higaturik, iheska,  
 aterpea gozatzen ebaska,  
 frogatzen baitira noiztenka  
 ahapetik negarrez hipaka.

**e2**

Etxe erretzen, odol isurtzen,  
 tiro itsuek arimak hiltzen.  
 Bihozgabeek lotsa sorrarazten,  
 jaunttoen manuz herra hedatzen.  
 Boterez gose denari oldarra,  
 libertatean bide bakarra.  
 Jendetasuna dugu indarra.  
 Bakeak, aldiz, denen beharra.

**e3**

Udak ekartzen bero saminak,  
 Hondarribiko arotz lagunak  
 klixki-klaxka jo armen burdinak.  
 Mendekurako prest gara artzainak.  
 Erronkariko oihanetan barna  
 eraiki dezagun elkartasuna.  
 Zuzentasuna zainduz aitzina,  
 libreki bizitzeko artzaina.

**Errepika**

Eraizen, bazterrak oro haize.  
 Arroka artean da hainbat leize.  
 Armek, beharrez, han gordegia.  
 Anaiek dukezue irangia.  
 Altxa perttika, eman indarra,  
 berriz jartzeko lege zaharra.  
 Uros bizi bedi artzaina,  
 betikoz haizea bezain libre.

**bortu:** mendi

**malur:** zorigaitz  
**pusatu:** bultzatu  
**ebaska:** ezkutuan  
**frogatu:** entzun  
**noiztenka:** noizbehinka  
**hipaka:** zotinka

**lotsa:** beldur  
**manu:** agindu  
**herra:** gorroto

**arotz:** errementari**oihan:** baso

**gordegia:** gordeleku  
**dukezue:** izango duzue  
**irangia:** igaroleku  
**pertika:** makila  
**uros:** zorientsu

**11. JELKALDIA****Etxauzeko Iñigo****114**

Nabarra Gaineakoer  
 Armak helarazi deitzegü  
 Prest direla altxatzeko  
 Hanitx dirade haidürü

**Joanikot****115**

Goatzen ordüan armak tente  
 Soa zorrotz eta lüze  
 Garazirik Orreaga arte  
 Han beikirate garaile

**Albreteko Henri****116**

Gainea hartü deiegü  
 Garazin et' Ibañetan  
 Aitzina goatzen bideetan  
 Kastillarren galtzetan

**Asparrotz jenerala****117**

Helarazi geneitzen armak  
 Dütüe orai ebiliko  
 Nabarra gaineoak zietzak  
 Tzakür horier altxatüko

**Graxana Iribarren****118**

Lizarrarik üken dit berri  
 Han zirela altxatü  
 Tuterako jenteek ere  
 Ditzüe etsaiak kixkiltü

**Joanikot****119**

Goatzen aitzina bidean  
 Albretekoen defentsan  
 Bulta gaitza hartü dügü  
 Libertatearen hatsan

**Joanikot**

Ezpatak bite mintza,  
 zabal beze gure hitza!

**Oro**

Altxa Baskoa!  
 Biba Nabarra libroa!

**11. JELKALDIA****Etxauzeko Inigo****114**

Nafarroa Garaikoei  
 armak helarazi dizkiegu.  
 Prest direla altxatzeko;  
 anitz dira aiduru.

**Joanikot****115**

Goazen orduan armak tente,  
 soa zorrotz eta luze,  
 Garazitik Orreaga arte  
 han baikarateke garaile.

**Albreteko Henri****116**

Gaina hartu diegu  
 Garazin eta Ibañetan.  
 Aitzina goazen bideetan,  
 gatzelarren galtzetan.

**Asparrotz jenerala****117**

Helarazi genizkien armak  
 dituzte orain erabiliko.  
 Nafarroa Garaikoak zaizkiek  
 txakur horiei altxatuko.

**Graxana Iribarren****118**

Lizarratik ukan dut berri,  
 han zirela altxatu.  
 Tuterako jendeek ere  
 dituzue etsaiak kiskildu.

**Joanikot****119**

Goazen aitzina bidean  
 Albretekoen defentsan.  
 Bulta gaitza hartu dugu  
 libertatearen hatsean.

**Joanikot**

Ezpatak bitez mintza,  
 zabal bezate gure hitza!

**Oro**

Altxa, baskoa!  
 Biba Nafarroa librea!

**aiduru:** zain**so:** begirada**garateke:** izango gara**aitzin:** aurre**galtze:** galbide**kiskildu:** deuseztatu**aitzin:** aurre**bulta:** bultzada**gaitz:** handi

**12. JELKALDIA****Naiarako dukea****120**

Mezü andana üken dit  
Nabarra Peko aldetik  
Albretekoak direla  
Indartsü jiten hantik

**Avila****121**

Ene izenak hala dio  
Nizala ni abila  
Banoa bertan Iruñearik  
Kastillara aterbe bila

**Juana Cardona y Enriquez****122**

Ene Antonio maitea  
Ezkapa gitean hebentik  
Güdüketan aritzeko  
Badükek beste nahiantik

**Juan Rena****123**

Beaumontesak egon bite  
Gerla arrunten egile  
Ene mezülari fidelak  
Ditikezüe lagüntzale

**Beatriz de Ycart****124**

Gure indarrak ditzagün  
Arren hobekixe presta  
Karlos errege handiak  
Ez dezan gal konkista

**Loiolako Ignazio****125**

Ni baratzen nüzü güdükari  
Ezpata esküan adi  
Kastillarren alde beti  
Jinkoaren zerbütari

**Joanikot****126**

Hau da garaipen handia  
Iruñea gure esku da  
Etsaiaren puzu beltza  
Gal bedi Kastillan barna

**127**

Nabartarrek egün Henri  
Haigü ozenki laidatzen  
Horren trük zerbait honik  
Orai diagü egürükitzen

**12. JELKALDIA****Naiarako dukea****120**

Mezu andana ukan dut  
Nafarroa Behereko aldetik,  
Albretekoak direla  
indartsu jiten handik.

**Avila****121**

Ene izenak hala dio  
naizala ni abila.  
Banoa bertan Iruñetik  
Gaztelara aterpe bila.

**Juana Cardona y Enriquez****122**

Ene Antonio maitea,  
eskapa gaitezen hemendik.  
Guduketan aritzeko  
badukek beste nahiantik.

**Juan Rena****123**

Beaumontarrak egon bitez  
gerra arrunten egile.  
Ene mezulari fidelak  
dituzkezue lagüntzaile.

**Beatriz de Ycart****124**

Gure indarrak ditzagun,  
arren, hobekixe presta,  
Karlos errege handiak  
ez dezan gal konkista.

**Loiolako Ignazio****125**

Ni baratzen naiz gudukari,  
ezpata eskuan adi,  
gaztelarren alde beti,  
Jainkoaren zerbitzari.

**Joanikot****126**

Hau da garaipen handia!  
Iruñea gure esku da.  
Etsaiaren pozo beltza  
gal bedi Gaztelan barna.

**127**

Nafarrek egun, Henri,  
haugu ozenki laudatzen.  
Horren truk zerbait onik  
orain diagü igurikitzen.

**andana:** mordo**jin:** etorri**bertan:** oraintxe**dukek:** izango duk  
**nahiant:** hautagai**arrunt:** ohiko, ohi bezalako**dituzkezue:** izango dituzue**arren:** beraz**baratu:** geratu**iguriki:** itxaron

**Albreteko Henri**

**128**

Eskerrak zor deitzüet  
Joanikot eta lagünak  
Izan zidee guretako  
Gerla gizon fidelak

**129**

Ez zaala düda Joanikot  
Jar hadi ene meneko  
Nabarra nik diat zaintüko  
Seküla ez ützi

**130**

Ene beste lürretan  
Beitüt tratü eramaiteko  
Asparrotz ützen deizüet  
Nabarraren manatzeko

**Albreteko Henri**

Ezpatak bite mintza,  
zabal beze Albreten hitza!

**Oro**

Altxa baskoa! Biba Albret erregea!  
Biba Nafarroa librea!

**Albreteko Henri**

**128**

Eskerrak zor dizkizuet,  
Joanikot eta lagunak.  
Izan zarete guretako  
gerra-gizon fidelak.

**129**

Ez dezaala duda, Joanikot.  
Jar hadi ene meneko.  
Nafarroa nik diat zainduko,  
sekula ez utziko.

**130**

Ene beste lurretan  
baitut tratü eramateko,  
Asparrotz uzten dizuet  
Nafarroaren manatzeko.

**Albreteko Henri**

Ezpatak bitez mintza,  
zabal bezate Albreten hitza!

**Oro**

Altxa, baskoa! Biba Albret erregea!  
Biba Nafarroa librea!

**meneko:** mendeko

**manatu:** agindu

**13. JELKALDIA**

1521eko maiatzaren 19an, Iruñean besta eguna da

**Antoña Agerre****131**

Egün egiten diagü zin  
Henri errege dügüla  
Leial egonen gitzaio  
Utzi eginen seküla

**Artiedako Xarles****132**

Iruñeako herriak  
Deizü batzarri egiten  
Lagüntü beikütüzü  
Etsaiaren kanpo igorten

**Asparrotz jenerala****133**

Nik Henriren izenean  
Deizüet hitza emaiten  
Züen fuero ta üsantxak  
Dütügüla errespetatüren

**Oztako Maia****134**

Botzik nük entzüteaz  
Higanik Henriren hitza  
Zaintzeko Nabarraren  
Izen eta izana

**Joanikot****135**

Azkenean gütükezü  
Gure lurretan aske  
Ene hütza xüxentü dit  
Libreago nüzü ni ere

**Goñi alkatea****136**

Bakea dügü laidatzen  
Armak ixilik preziatzen  
Müsika, bertso ozenez  
Has gitean ospatzen

**13. JELKALDIA****Antoña Agerre****131**

Egun, egiten diagu zin  
Henri errege dugula.  
Leial egonen gatzazkio;  
utzi eginen sekula ez.

**Artiedako Xarles****132**

Iruñeko herriak  
dizu batzarri egiten,  
lagundu baikaituzu  
etsaiaren kanpo igortzen.

**Asparrotz jenerala****133**

Nik Henriren izenean  
dizuet hitza ematen  
zuen foru eta usantzak  
ditugula errespetatuko.

**Oztako Maia****134**

Pozik nauk entzuteaz  
higandik Henriren hitza,  
zaintzeko Nafarroaren  
izen eta izana.

**Joanikot****135**

Azkenean garateke  
gure lurretan aske.  
Ene hutsa zuzendu dut.  
Libreago naiz ni ere.

**Goni alkatea****136**

Bakea dugu laudatzen,  
armak isilik preziatzen.  
Musika- bertso ozenez,  
has gaitzen ospatzen.

**batzarri:** abegi**igorri:** bidali**usantza:** ohitura, usadio**garateke:** izango gara

**KANTA VI**  
**1521eko maiatzaren 19a**

**Errepika**

Iruñar jente fierrak  
Altxa Baskoa, Biba Nabarra libroa  
Iruñar jente fierrak  
Hel bedi ardua  
Etsaia garaiturik  
Atzo Kastillakoer bezala  
DiezaioGUN egin ardo honi gerla

**f1**

Mila bost ehün eta  
Hogeita bat garrena  
Primadera erditsütan  
Ürrentü auhena  
Hiruetan tentatürük  
Garaitzeko azkena  
Jerüsalem galdüari  
Eten zaio kondena

**f2**

Ehünka ta milaka  
Gerlari hon zentürük  
Zonbat herritarren bizi  
Bidean galdürük  
Gaürük ülünenak baitü  
Azkorria ondotik  
Ez dügü lür hontan nahi  
Orano beste güdarik

**f3**

Baztan aldean gazteak  
Erruntean dantzan ari  
Irunberrin tupin egile  
Saldo bat kantari  
Haur taldea Iruñetik  
Eüskaraz heien amari  
Leheneko libertatea  
Düe berriz ekarri

**f4**

Albret aita zenari  
Armekin ebatsia  
Haren semearen tropek  
Berresküratüa  
Soroko belar gaixtoak  
Düanez zaina lüzea  
Orai denen lana date  
Hau gure begiratzea

**KANTA VI**  
**1521eko maiatzaren 19a**

**Errepika**

Iruindar jende fierrak,  
altxa baskoa, biba Nafarroa librea!  
Iruindar jende fierrak,  
hel bedi ardoa!  
Etsaia garaiturik,  
atzo Gaztelakoei bezala,  
diezaioGUN egin ardo honi gerra.

**f1**

Mila bostehun eta  
hogeita batgarrena.  
Primadera erditsuan  
urrendu auhena.  
Hiruretan tentaturik,  
garaitzeko azkena.  
Jerusalem galduari  
eten zaio kondena.

**f2**

Ehunka eta milaka  
gerrari on zendurik.  
Zenbat herritarren bizi  
bidean galdurik!  
Gaurik ilunenak baitu  
azkorria ondotik,  
ez dugu lur honetan nahi  
oraino beste güdarik.

**f3**

Baztan aldean, gazteak  
Errondan dantzan ari.  
Irunberrin, tupinagile  
saldo bat kantari.  
Haur-taldea Iruñetik  
euskaraz haien amari.  
Lehenengo libertatea  
dute berriz ekarri.

**f4**

Albret aita zenari  
armekin ebatsia,  
haren semearen tropek  
berreskuratua.  
Soroko belar gaiztoak  
duenez zaina luzea,  
orain denen lana dateke  
hau gure begiratzea.

**fier:** adoretzu

**primadera:** udaberri  
**urrendu:** amaitu  
**auhen:** aiene

**zendu:** hil

**azkorri:** egunsenti

**oraino:** areago

**tupinagile:** eltzegile  
**saldo:** talde

**dateke:** izango da

**KANTA VII**  
**Besta egüna Iruñean**

**g1**  
 Gerla egünak ürrentürrik, harro eta lorius gira  
 Ospa dezagün ospa, Henri errege berria

**g2**  
 Zortea kanbiatü zaio, Joanikot süjetari  
 Oraiko garaipenean, botzik beita ageri

**g3**  
 Albretekoen ohorea, altxatzen da denen bistan  
 Haatik gaüzak nahasten, ari dira axialpean

**g4**  
 Zortea ekürüan beno, joküan da laketago  
 Ütürri garbiaz aserik, lohia dü nahiago

**g5**  
 Joanikot botzik dela, llabür düke atsedena  
 Zabaltüko beitzaiio, funtsean bide ülüna

**KANTA VII**  
**Besta eguna Iruñean**

**g1**  
 Gerra egunak urrendurik, harro eta lorios gara.  
 Ospa dezagun, ospa, Henri errege berria.

**g2**  
 Zortea kanbiatu zaio Joanikot sujetari,  
 oraingo garaipenean pozik baita ageri.

**g3**  
 Albretekoen ohorea altxatzen da denen bistan.  
 Haatik, gauzak nahasten ari dira azalpean.

**g4**  
 Zortea ekuruan baino, jokoan da laketago.  
 Iturri garbiaz aserik, lohia du nahiago.

**g5**  
 Joanikot pozik dela, labur duke atsedena,  
 zabalduko baitzaio funtsean bide iluna.

**urrendu:** amaitu, bukatu  
**lorios:** loriaz betea

**sujet:** pertsonaia

**ekuru:** geldi  
**laket:** atsegin

**duke:** izango du

**14. JELKALDIA****Joanikot****137**

Güdüka horik irabazirik  
 Orai has gitean prestatzen  
 Builta gaitzean beitzai gü  
 Atakan etsaia jinen

**Asparrotz****138**

Ez düe halako txestürik  
 Gure gana hüilantzeko  
 Profeita dezagün orano  
 Kastillan lür hartzeko

**139**

Ene armada ederrarekin  
 Aintzina joanen nük orano  
 Laster abia nintakek  
 Hartü arte Logroño

**Albreteko Henri****140**

Tentagarri dük ideia  
 Gustatzen zitadak asmoa  
 Kastillarrak ditzagün  
 Pastillaren gisa puskaka

**Belaskoko Ana****141**

Nontik ote horra zaie  
 Holako anbizioea  
 Beso motz aho handi  
 Direla dü't ustekeria

**Joanikot****142**

Niagozü François Lehenak  
 Ez dü'tüanez aküilatü  
 Haren manüak ditzüe  
 Segür ere ontsa behatü

**Mahoma Ezkerro****143**

Haatik gure sar leküak  
 Üzten dü'tüe gibelean  
 Nor egonen da zaintzale  
 Zangotzan, Burgin, Garazin

**Oztako Maia****144**

Nabarrako sar güneak  
 Ditzagün zaintü ontsa  
 Gure habian ez dadin  
 Sar etsai ohoina

**14. JELKALDIA****Joanikot****137**

Guduka horiek irabazirik,  
 orain has gaitezen prestatzen,  
 bulta gaitzean baitzaigu  
 erasoan etsaia jinen.

**Asparrotz****138**

Ez dute halako txesturik  
 guregana hullantzeko.  
 Profita dezagun oraino  
 Gaztelan lur hartzeko.

**139**

Ene armada ederrarekin  
 aitzina joanen nauk oranio.  
 Laster abia nintekek,  
 hartu arte Logroño.

**Albreteko Henri****140**

Tentagarri duk ideia.  
 Gustatzen zaidak asmoa.  
 Gaztelarrak ditzagun  
 pastillaren gisa puskaka.

**Belaskoko Ana****141**

Nondik ote horra zaie  
 horrelako anbizioa?  
 Beso-motz aho-handi  
 direla dut ustekeria.

**Joanikot****142**

Nago Frantzisko Lehenak  
 ez dituenetz akuilatü.  
 Haren manuak ditzute  
 segur ere ontsa behatu.

**Mahoma Ezkerro****143**

Haatik, gure sarlekuak  
 uzten ditzute gibelean.  
 Nor egonen da zaintzaile  
 Zangozan, Burgin, Garazin?

**Oztako Maia****144**

Nafarroako sarguneak  
 ditzagun zaindu ontsa,  
 gure habian ez dadin  
 sar etsai ohoina.

**bulta:** une**jin:** etorri**txestu:** zentzu**hullandu:** hurbildu**profitatu:** aprobeixatu**oraino:** areago**aitzin:** aurre**oraino:** areago**puskakatu:** puskatu**horra izan:** etorri**nago:** neure buruari  
galdetzen diot**manu:** agindu**behatu:** entzun**gibel:** atze**ohoin:** lapur



**Joanikot**

**145**

Karlos hi habiloa  
Amaiurrekoen biltzera  
Ni banoak Garazira  
Defentsaren azkartzera

**Joanikot**

**145**

Karlos! Hi habil-hoa  
Amaiurrekoen biltzera.  
Ni banoak Garazira  
defentsaren azkartzera.

**azkartu: sendotu**

**SATANERIA****Satan****146**

Ez diñagü fini entzütea  
 Albretekoen balentia  
 Baskoek lagüntürük  
 Nabarra düela arrabildüa

**Büljifer****147**

Eni ez zitadan gustatzen  
 Holako espantoa  
 Ez likeñe hon Basko horiek  
 Azkar direla pentsatzea

**Satan****148**

Ikusi diñat horietan bat,  
 Papoa aisa zaiona hantzen  
 Asparrotz jaunaz ari nün  
 Eia dügünez hura harrotzen

**Büljifer****149**

Eraman bitza Baskoak  
 Gerla gaitz batean barna  
 Gal dezen orozbakoz  
 Lür jabe sinestea

**Satan****150**

Edirenen diñagü zombait  
 Handitzeko gosea dükeena  
 Horier behar giniken  
 Amets ejer hitzeman

**Büljifer****151**

Kastillako jaunekin  
 Jarten badira propiki  
 Ederrago, aberatsago  
 Izanen dütün segurki

**SATANERIA****Satan****146**

Ez dinagu fini entzutea  
 Albretekoen balentria:  
 baskoek lagundurik  
 Nafarroa dutela berriz bildua.

**Buljifer****147**

Eni ez zaidan gustatzen  
 horrelako espantua.  
 Ez luken on basko horiek  
 azkar direla pentsatzea.

**Satan****148**

Ikusi dinat horietan bat,  
 papoa aise zaiona hantzen.  
 Asparrotz jaunaz ari naun.  
 Ea dugunetz hura harrotzen.

**Buljifer****149**

Eraman bitza baskoak  
 gerra gaitz batean barna,  
 gal dezaten orozbakoz  
 lur-jabe sinestea.

**Satan****150**

Edirenen dinagu zenbait,  
 handitzeko gosea duketenak.  
 Horiei behar genieken  
 amets eder hitzeman.

**Buljifer****151**

Gaztelako jaunekin  
 jartzen badira propioki,  
 ederrago, aberatsago  
 izanen ditun segurki.

**fini izan:** amaitu**espantu:** harropuzkeria**papo:** papar  
**hantu:** hanpatu, puztu**orozbakoz:** betiko**ediren:** aurkitu  
**dukete:** izango dute

**15. JELKALDIA****Estefania de Trejo Carvajal  
152**

Erauntsi diagü azkarki  
Gure armaden handitzen  
Milaka soldado zikük  
Orai bazter orotarik jiten

**Naiarako dukea  
153**

Kontent nük ikustez ere  
Jin zaizküla Iparretik  
Armada sento andana  
Bizkai, Gipuzkoa, Arabarik

**Aialako Karmela Lopez  
154**

Nabarrako Baskoak  
Ez dütük gü bezalako  
Ni nahiago nük züekin  
Beitzidee azkarrago

**Aialako Diego Lopez  
155**

Karlos handiak dik fama  
Ürrez asia atzamana  
Ameriketarik aberasten  
Nik ere har nitek txesta

**Naiarako dukea  
156**

Aiziondo izanen hiz  
Kanpamentüen bürüa  
Hala diagü osotüren  
Armada inperial handia

**Aiziondoko Juan Perez  
157**

Gütan kontatzen ahal dük  
Fidel izanen gütük  
Leher artino zankopean  
Nabartar herratü horik

**Estefania de Trejo Carvajal  
158**

Egotx ditzagün nobleak  
Nik interes badiat hortan  
Galdüko dütüen lürrak  
Hartüko ditiat esküetan

**Frantzes Beaumonti  
159**

Azkenekoz atzaman haüt  
Noainen ontsa tinkatürük  
Habil hor kieto ixilik  
Ezpata gabe herbaltürük

**15. JELKALDIA****Estefania de Trejo Carvajal  
152**

Erauntsi diagü azkarki  
gure armaden handitzen.  
Milaka soldadu zaizkiguk  
orain bazter orotarik jiten.

**Naiarako dukea  
153**

Kontent nauk ikustez ere  
jin zaizkigula Iparretik.  
Armada sendo andana  
Bizkai, Gipuzkoa, Arabatik.

**Aialako Karmela Lopez  
154**

Nafarroako baskoak  
Ez dituk gu bezalako.  
Ni nahiago nauk zuekin,  
baitzarete azkarrago.

**Aialako Diego Lopez  
155**

Karlos handiak dik fama  
urrez asea; atzeman  
Ameriketatik aberasten.  
Nik ere hartuko nitek dasta.

**Naiarako dukea  
156**

Aiziondo, izanen haiz  
kanpamentuen burua.  
Hala diagü osotuko  
armada inperial handia.

**Aiziondoko Juan Perez  
157**

Gutan kontatzen ahal duk.  
Fidel izanen gaituk  
leher artio zangopean  
nafar herratu horiek.

**Estefania de Trejo Carvajal  
158**

Egotz ditzagun nobleak.  
Nik interes badiat horretan.  
Galduko dituzten lurrak  
hartuko ditiat esküetan.

**Frantzes Beaumont  
159**

Azkenekoz atzeman haut  
Noainen ontsa tinkaturik.  
Habil hor kieto isilik,  
ezpata gabe herbaldurik.

**erauntsi:** jardun**jin:** etorri**jin:** etorri**azkar:** indartsu**ase:** bete**dasta:** gustu**artio:** arte**herratu:** bidea galdu**herbal:** ahuldu

**Naiarako dukea**

**160**

Aitzina goatzan gerlari  
Erra ditzagün bazterrak  
Lürra ikara sendi beza  
Pekaldeko Nabarrak

**Naiarako dukea**

**160**

Aitzina goazen gerrari.  
Erre ditzagun bazterrak.  
Lurrikara senti beza  
Nafarroa Behereak.

aitzin: aurre

**16. JELKALDIA****Graxana Iribarren****161**

Nabarra gaine hartarik  
Jin zaikü mezü andana  
Kastillarrak indarrean  
Horra direla berehala

**Joanikot****162**

Bil gitean gaztelüan  
Etxek dezagün hau gogor  
Hatsa dügüno orano  
Ez beikirate gü lotsor

**Joanikot**

Ezpatak bite mintza,  
zabal beze gure hitza!

**Oro**

Altxa Baskoa! Biba Nabarra libroa!

**Collazos kapitaina****163**

Joanikot esküetan haüt  
Hi traidore zikina  
Enekin gerlan izanik,  
Orai etsai handiena

**164**

Iruñean nahi heroiko  
Iruñean haigü eroko  
Galtzale tristanta hi  
Haigü lahardekiko

**16. JELKALDIA****Graxana Iribarren****161**

Nafarroa Garai hartatik  
jin zaigu mezu-andana,  
gaztelarrak indarrean  
horra direla berehala.

**Joanikot****162**

Bil gaitezen gazteluan,  
atxiki dezagun hau gogor,  
hatsa duguno oraino  
ez baikarateke gu lotsor.

**Joanikot**

Ezpatak bitez mintza,  
zabal bezate gure hitza!

**Oro**

Altxa, baskoa! Biba Nafarroa librea!

**Collazos kapitaina****163**

Joanikot, eskuetan haut.  
Hi, traidore zikina.  
Enekin gerran izanik,  
orain etsai handiena.

**164**

Iruñean nahi heroiko,  
Iruñean haugu eroko.  
Galtzaile triste hi.  
Haugu lahardekatuko.

**jin:** etorri**horra izan:** etorri**hats:** arnasa**duguno:** dugun artean**garateke:** izango gara**lotsor:** beldurti**ero:** hil**lahardekatu:** larrutu

**KANTA VIII**  
**Gure bakea**

**h1**

Usuk, ürre belaünko eta bürüa apal  
Meneko izan ditean, ezpatagabe  
Ümil, ttipi, ahül eta ahalke  
Etxeak errauts, Baskoen lenguajea zokotürrik  
Ümil, ttipi, ahül eta ahalke  
Baskoa hala denean gü gira laket  
Ümil, ttipi, ahül eta ahalke  
Baskoa hala denean da gure bake

**Joanikotk**  
**165**

Hi gizon arnegata  
Amets beltzen saltzalea  
Harrizko bihotzarekin  
Egün ene erailea

**166**

Hire karkaza ozenak  
Karriketän dik arangatzen  
Üdürri zortearen  
Hil zeinüak joiten

**KANTA VIII**  
**Gure bakea**

**h1**

Ausiki, urra. Belauniko eta burua apal.  
Mendeko izan daitezen, ezpatagabe.  
Umil, ttipi, ahul eta ahalke.  
Etxeak errauts, baskoen lengoaia zokoraturik.  
Umil, ttipi, ahul eta ahalke.  
Baskoa hala denean, gu gara laket.  
Umil, ttipi, ahul eta ahalke.  
Baskoa hala denean da gure bake.

**Joanikotk**  
**165**

Hi, gizon arnegatua,  
amets beltzen saltzailea,  
harrizko bihotzarekin,  
egun ene erailea.

**166**

Hire karkara ozenak  
karriketän dik arangatzen.  
Iduri zortearen  
hil-zeinuak jotzen.

**ahalke:** lotsati  
**laket:** atsegin

**arnegatu:** norbere balioei  
uko egin

**eraile:** hiltzaile

**karkara:** algara  
**aranatu:** oihartzuna sortu  
**iduri:** dirudi  
**zeinu:** kanpai

**17. JELKALDIA****Mikel Jatsu****167**

Herioari ezkapa  
 Mankatürrik heltü nüzü  
 Karlosen armada azkarra  
 Builta gaitzean jin ziküzü

**Oztako Maia****168**

Tebasen oro ützirik  
 Ni gordaxka ezkapü nük  
 Armada handi berria  
 Han ere bai sartü dük

**169**

Zalema ikusten zütüt  
 Sabelean mankatürrik  
 Jakin nahi nikezü  
 Badüzüa Joanen berririk

**Zalema Madexa****170**

Garazin presoner hartürrik  
 Azkenekoz ikusia  
 Hantik ezagün züzün ere  
 Collazosen erri hotza

**17. JELKALDIA****Mikel Jatsu****167**

Herioari eskapa,  
 mankatürrik heldu naiz.  
 Karlosen armada azkarra  
 bulta gaitzean jin zaigu.

**Oztako Maia****168**

Tebasen oro utzirik,  
 ni gordeka eskapatu nauk.  
 Armada handi berria  
 han ere bai sartu duk.

**169**

Zalema ikusten zaitut  
 sabelean mankatürrik.  
 Jakin nahi nuke:  
 baduzua Joanen berririk?

**Zalema Madexa****170**

Garazin preso hartürrik  
 azkenekoz ikusia.  
 Handik ezagun zen ere  
 Collazosen irri hotza.

**mankatu:** zauritu**bulta:** une**jin:** etorri**mankatu:** zauritu**baduzua:** ba al duzu

**KANTA IX****Oztako Maiak Joani kantatzen dio****i1**

Joan ene maite bihotza  
Gogoa hitan diat beti  
Nahiago ene besoetan  
Betikoz barat bahendi

**i2**

Hire begi ejer hura  
Eri püntez gogo nitek  
Hunki ahal baneza  
Eta fereka goxoki

**i3**

Ezin haüt hunki, besarka  
Horrek ditak sortzen pena  
Nola haüe erabilten  
Nola hiz ote, min düka

**i4**

Herri honen Historian  
Axolbe bila doana  
Niagok ni nizanez  
Azkena ala lehena

**i5**

Barneko mentsa handi diat  
Bitan bardin handiago  
Galdü beit haüt ene Joan  
Bai eta herria oro

**Oztako Maia****171**

Ikara barrasta nüzü ni  
Lotsak gainea harturik  
Zer agitüko zaikü guri  
Badükegüa bizirik

**Belaskoko Ana****172**

Nik uste gogor gütüen  
Orai gaztigatüko  
Ez deiküe parkatüren  
Libre izan girelako

**173**

Hobe dizügü orai  
Nabarrarik kanpo egoitea  
Gure herria ütirik  
Axolbe txerkatzea

**Mikel Jatsu****174**

Nik ez dit beste biderik  
Gerla egitea beno  
Arra joanen nüzü fite  
Jarraitiko dit soldado

**KANTA IX****Oztako Maiak Joani kantatzen dio****i1**

Joan, ene maite bihotza,  
gogoa hitan diat beti.  
Nahiago ene besoetan  
betikoz bara bahendi.

**i2**

Hire begi eder hura  
eri-puntez gogo nitek  
hunki ahal baneza,  
eta fereka goxoki.

**i3**

Ezin haut hunki, besarka.  
Horrek zidak sortzen pena.  
Nola haute erabiltzen?  
Nola haiz ote? Min duka?

**i4**

Herri honen historian  
aizolbe bila doana  
niagok ni naizenetz  
azkena ala lehena.

**i5**

Barneko mentsa handi diat,  
bitan berdin handiago,  
galdu baitaut ene Joan,  
bai eta herria oro.

**Oztako Maia****171**

Ikara parrasta naiz ni,  
lotsak gaina harturik.  
Zer agituko zaigu guri?  
Badukegua bizirik?

**Belaskoko Ana****172**

Nik uste gogor gaitizten  
orain gaztigatuko.  
Ez digute barkatuko,  
libre izan garelako.

**173**

Hobe dugu orain  
Nafarroatik kanpo egotea;  
gure herria ütirik,  
aizolbe xerkatzea.

**Mikel Jatsu****174**

Nik ez dut beste biderik  
gerra egitea baino.  
Arrajoanen naiz fite.  
Jarraituko dut soldadu.

**hitan:** hiregan**baratu:** geratu**eri:** atzamar**hunkitu:** ukitu**ferekatu:** laztandu**hunkitu:** ukitu**duka:** al duk**aizolbe:** babestoki**niagok:** galdetzen zioat

neure buruari

**ments:** huts, falta**berdin:** agian, beharbada**parrasta:** pila / oso**lotsa:** beldur**agitu:** gertatu**badukegua:** izango al dugu**gaztigatu:** zigortu**aizolbe:** babestoki**xerkatu:** bilatu**arrajoan:** berriro joan**fite:** arin



**Zalema Madexa**

**175**

Ni ere bai güdükatzera  
Jinen nük hirekılan  
Setioan direla entzün diat  
Amairko gaztelüan

**Oztako Maia**

**176**

Nik badit lagün Baionan  
Harat arte nüzü joanen  
Etxe hüts ta oritzapen  
Enekılan eramanen

**Belaskoko Ana**

**177**

Nola egin genezake  
Egün alkar agurtzeko  
Ez beitaigü düğünez  
Berriz alkar ikusiko

**Zalema Madexa**

**175**

Ni ere bai gudukatzera  
jinen nauk hirekin.  
Setioan direla entzun diat  
Amairko gazteluan.

**Oztako Maia**

**176**

Nik badut lagun Baionan.  
Harat arte naiz joanen.  
Etxe huts eta oroitzapen  
enekin eramanen.

**Belaskoko Ana**

**177**

Nola egin genezake  
egun elkar agurtzeko,  
ez baitakigu dugunetz  
berriz elkar ikusiko?

jin: etorri

**KANTA X**  
**Norat doaz****j1**

Norat doatza  
Mendien gainti odeien barna  
Badabiltzan txoriak  
Erran zaüeia  
Aragi fresk koiak, haidürü dütüela  
Gizon gaitz armatuak

**Errepika**

Arrano beltza bere lürraren  
Herexa bila badabil  
Itzala ageri da  
Nork erran liroke jada dela hil

**j2**

Habia bilha  
Ützirik Iruñea  
Ihesa lagün  
Hor daude Albretarrak  
Indarrez dira  
Ezpaten bidez  
Etxeetan sartü  
Kastillar basatiak

**j3**

Txori hegalariak  
Aizearengatik  
Plomiengatik  
Ozen dü xaramela  
Nafartar haurrak  
Beldürrik gabe  
Kanta dezala  
Albretarren lür hura

**j4**

Txorien saldoan  
Zaharra dügü  
Gazten eramaile  
Iragana dü gogoan  
Itzal artean  
Lüzaz egonik  
Nafar ixtoria  
Agertzen da argian

**j5**

Txoria badoa  
Iparra ütirik  
Hego aldeala  
Zer nahi izan aroa  
Nafar jentea  
Halaber doa  
Bihotzean gorderik  
Biharko argi hura

**KANTA X**  
**Norat doaz****j1**

Norat doaz  
mendien gaindi, hodeien barna  
badabiltzan txoriak?  
Erran zaiea  
haragi fresko-zaleak aiduru dituztela?  
Gizon gaitz armatuak?

**Errepika**

Arrano beltza bere lurraren  
herexa bila badabil.  
Itzala ageri da.  
Nork erran liro jada dela hil?

**j2**

Habia bila  
utzirik Iruñea,  
ihes-lagun  
hor daude Albretarrak.  
Indarrez dira  
ezpaten bidez  
etxeetan sartu  
gaztelar basatiak.

**j3**

Txori hegalariak  
haizearengatik,  
plomuengatik,  
ozen du xaramela.  
Nafartar haurrak  
beldurrik gabe  
kanta dezala  
Albretarren lur hura.

**j4**

Txorien saldoan  
zaharra dugu  
gazten eramaile.  
Iragana du gogoan.  
Itzal artean  
luzaz egonik,  
nafar historia  
agertzen da argian.

**j5**

Txoria badoa  
iparra utzirik  
hegoaldera  
zernahi izan aroa.  
Nafar jendea  
halaber doa,  
bihotzean gorderik  
biharko argi hura.

**zaiea:** al zaie  
**aiduru:** zain

**herexa:** arrasto, aztarna

**liro:** lezake

**plomu:** berun  
**xaramela:** txirula, txilibitu

**saldo:** talde

**aro:** eguraldi

**18. JELKALDIA**

1521eko uztailean, Joanikot Iruñean da preso

**Naiarako dukea****178**

Hire afrontü handia  
Beharko dük pakatü  
Egün Iruñeako plazan  
Ontsa epaitüko haügü

**Albako dukea****179**

Eman deiok alejantzia  
Errege arrotz bati  
Hire arima nahasia  
Saldü deiok debruari

**Estefania de Trejo Carvajal****180**

Orai Joanikot tristea  
Heben dük akabatzea  
Kastillarren traditzeak  
Ez beitü parkamentüa

**Naiarako dukea****181**

Enperadoreak diok  
Züen herexarik ez üztez  
Gomendatü dikük ordüan  
Laxüki mendekü hartzez

**182**

Hargatik kondenatzen haüt  
Izanen hiz ürkatürük  
Damü hadi hire hütsaz  
Ordüan hizate ehortzirük

**Juan Rena****183**

Orai behar dük zeditü  
Maitatü Karlos handia  
Bestelan dükek korpitza  
Hagetan lotürük puskaka

**Joanikot****184**

Züen eskü zikinetan  
Ez nitzaizüe zeditüko  
Begien arteala tü  
Neikezüe egin nahiago

**185**

Karlos bertan sahesten diat  
Hura ez dük lejitimo  
Nabarra nahi beilüke  
Kastillaren esklabo

**18. JELKALDIA****Naiarako dukea****178**

Hire afruntu handia  
beharko duk pagatu.  
Egun Iruñeko plazan  
ontsa epaituko haugu.

**Albako dukea****179**

Eman diok alejantzia  
errege arrotz bati.  
Hire arima nahasia  
saldu diok debruari.

**Estefania de Trejo Carvajal****180**

Orain, Joanikot tristea,  
hemen duk akabatzea,  
gaztelarren traditzeak  
ez baitu barkamendua.

**Naiarako dukea****181**

Enperadoreak zioak  
zuen herexarik ez uztez.  
Gomendatu ziguk orduan  
laxoki mendeku hartzez.

**182**

Hargatik kondenatzen haut.  
Izanen haiz urkaturük.  
Damu hadi hire hutsaz.  
Orduan haizateke ehortzirük.

**Juan Rena****183**

Orain behar duk zeditu,  
maitatu Karlos handia.  
Bestela dukek gorputza  
hagetan loturük puskaka.

**Joanikot****184**

Zuen esku zikinetan  
ez natzaizue zedituko.  
Begien artera tu  
nizueke egin nahiago.

**185**

Karlos bertan saihesten diat.  
Hura ez duk lejitimo,  
Nafarroa nahi bailuke  
Gaztelaren esklabo.

**afruntu:** laido, irain**alejantzia:** zin-hitz**traditu:** saldu**herexa:** arrasto, aztarna**laxoki:** nahieran, libreki**haizateke:** izango haiz**zeditu:** amore eman**dukek:** izango duk**bertan:** une honetan  
**saihestu:** errefusatu

**186**

Ni Joanikot kapitaina  
Baratüko nük betiko  
Nabarra libroaren alte  
Konbatitzen soldado

**Naiarako dukea****187**

Borreroak beza orai  
Lepoa sokaz ebaki  
Basko'arnegaten ixtoria  
Heben akaba bedi

**188**

Deagü ürkatü ondoan  
Korpitza puzkakatüren  
Eta haga horien püntan  
Ütziko haügü hirotzen

**186**

Ni, Joanikot kapitaina,  
baratuko nauk betiko  
Nafarroa librearen alde  
konbatitzen soldadu.

**Naiarako dukea****187**

Borreroak beza orain  
lepoa sokaz ebaki,  
basko arnegatuen historia  
hemen akaba bedi.

**188**

Diagu urkatu; ondoan  
gorputza puskakatuko,  
eta haga horien puntan  
utziko haugu hirotzen.

**baratu:** geratu**arnegatu:** norbere balioei  
uko egin**puskakatu:** puskatu**hirotu:** usteldju

**KANTA XI****Entzun nazazu kantan****k1**

Zü ziren lekütik Maia, entzün nezazü kantan  
 Botz eztiáz nahi dit, zuretako hau erran  
 Zü güdüketan aüzo, gerlak gütü berexi  
 Nola naüen eroko, jakinen düzü sarri  
 Enetako ez otoi, lüzaz egon penatürik  
 Zonbat maite zütüdan, gogoan etxek baizik

**k2**

Eta heben zidener, jinik hiltzen ikustera  
 Ahatz ene ixtoria, ahatz ene herioa  
 Gal bedi kapar artean, gal lohian barna  
 Egün pakatzen beitüt, ürgüilüz ari izana  
 Ene bide galdüan, üken düüt balentriak  
 Ütsüki ere jarraiki, amets ejer faltsüak

**k3**

Ez xerka mendeküa, debaldetan lizate  
 Ber zainetik günüke, tai gab'odol ixurte  
 Bizi osoa nüan, argirik gabeko bide  
 Ta hartaz orhitzeak, balio düa ote  
 Züek egon axolbean, imajinetan gorda  
 Ez iratzar, ez orit, 'ta ez galtorik pausa

**KANTA XI****Entzun nazazu kantan****k1**

Zu zaren lekutik, Maia, entzun nazazu kantan.  
 Botz eztiáz nahi dut zuretako hau erran.  
 Zu guduketan auzo, gerrak gaitu bereizi.  
 Nola nauten eroko, jakinen duzu sarri.  
 Enetako ez, otoi, luzaz egon penaturik,  
 zenbat maite zaitudan gogoan atxiki baizik.

**ero:** hil, erail**k2**

Eta hemen zaretenei jinik hiltzen ikustera,  
 ahatz ene historia, ahatz ene herioa.  
 Gal bedi kapar artean, gal lohian barna,  
 egun pagatzen baitut urguiluz ari izana.  
 Ene bide galduan ukan ditut balentriak.  
 Itsuki ere jarraitu amets eder faltsuak.

**jin:** etorri**k3**

Ez xerka mendekua, debaldetan litzateke.  
 Ber zainetik genuke tai gabe odol isurtze.  
 Bizi osoa nuen argirik gabeko bide,  
 eta hartaz oroitzeak balio dua ote?  
 Zuek egon aizolbean, imajinetan gorde.  
 Ez iratzar, ez oroi, eta ez galtorik pausa.

**xerkatu:** bilatu**tai gabe:** gelditu gabe**dua:** al du**aizolbe:** babesleku**galto:** eskaera**pausatu:** jarri, ipini

**KANTA XII****Iruñeko haurrak kantan****I1**

Beltz eta gorriz egün, Iruñeako karrikak  
Hitza etxekei beitu, Joanikot gerlagizonak

**I2**

Joanikoten bizian, bidea zaio türbüstü  
Hüts bat egin beitzüan, ta'arragibel ezin bildü

**I3**

Fidel egon da gero, errege Albretekoekin  
Bena etsaiarentako, afrontü handia egin

**I4**

Ogendant ikusi düe, beste hanitx bezala  
Ororentako mendeküa, zabaltüko ere berehala

**KANTA XII****Iruñeko haurrak kantan****I1**

Beltz eta gorriz egun Iruñeko karrikak,  
hitza atxiki baitu Joanikot gerra-gizonak.

**I2**

Joanikoten bizian, bidea zaio turbustu,  
huts bat egin baitzuen, eta arragibel ezin bildu.

**I3**

Fidel egon eta gero errege Albretekoekin,  
baina etsaiarendako afruntu handia egin.

**I4**

Ogendant ikusi dute, beste anitz bezala.  
Ororendako mendekua, zabalduko ere berehala.

**turbustu:** uhertu  
**arragibel:** atzera

**afruntu:** laido, irain

**ogendant:** errudun

**KANTA XIII**  
**Agurra**

**m1**

Agur, agur, agur lagunak  
Entzun gure kantua  
Zuen uzta herritarrentzat baita, baita azia  
Zuen uzta herritarrentzat baita, baita azia

**m2**

Kanta, kanta, kanta gurekin  
Abots sakon, ozenez  
Gure kanta entzuleentzat baita, baita otoitza  
Gure kanta entzuleentzat baita, baita otoitza

**KANTA XIII**  
**Agurra**

**m1**

Agur, agur, agur, lagunak;  
entzun gure kantua.  
Zuen uzta herritarrentzat baita, baita hazia.  
Zuen uzta herritarrentzat baita, baita hazia.

**m2**

Kanta, kanta, kanta, gurekin  
ahots sakon, ozenez  
Gure kanta entzuleentzat baita, baita otoitza.  
Gure kanta entzuleentzat baita, baita otoitza.

**AZKEN PEREDIKUA****189**

Eskertzen zütüt laxüki  
Zü popülü fidela  
Atentziona handiz zira  
Egon so eta beha

**190**

Ikasi düzü egün  
Eüskal Herriko ixtoria  
Igan dena Nabarran  
Düala mente andana

**191**

Aide gaitza züzün ordüan  
Hanitz züzün erreboiltan  
Emazte eta gizon  
Biak sartzen güdüketan

**192**

Saso hartarik landa  
Nabarra bitan moztü  
Gainekoa, Pekoa  
Mügak zitizün partitü

**193**

Güdüka latzek zizüen  
Ondorio txarrik ere üken  
Albreten altekoek  
Urtez sofritü beitzüen

**194**

Fama handixkoa ere  
Bildü zizün setio batek  
Amaiurren igaran zenak  
Lüzaz iraün beitzüan harek

**195**

Balizateke besterik  
Orano ere kontatzeko  
Zabal etzazü libürüak  
Horien oroen ikasteko

**196**

Partitü gabe zütügü  
Berriz erremestiatzen  
Orai hasiko den jeian  
Dizügü ele emanen

**197**

Ondotik joan zitaie  
Nor züen etxetara  
Eta maita herria  
Üken dezadan plazera

**AZKEN PEREDIKUA****189**

Eskertzen zaitut laxoki  
zu, populu fidela.  
Atentzio handiz zara  
egon so eta beha.

**190**

Ikasi duzu egun  
Euskal Herriko historia,  
iragan dena Nafarroan  
duela mende andana.

**191**

Aire gaitza zen orduan;  
anitz zen erreboltan.  
Emazte eta gizon  
biak sartzen guduketan.

**192**

Sasoi hartarik landa  
Nafarroa bitan moztu.  
Garaia, Beherea  
mugak zituen partitu.

**193**

Guduka latzek zuten  
ondorio txarrik ere ukan,  
Albreten aldekoek  
urtez sufritu baitzuten.

**194**

Fama handixkoa ere  
bildu zuen setio batek:  
Amaiurren igaro zenak,  
luzaz iraun baitzuen hark.

**195**

Balitzateke besterik  
oraino ere kontatzeko.  
Zabal itzazu liburuak  
horien oroen ikasteko.

**196**

Partitu gabe zaitugu  
berriz erremerziatzen.  
Orain hasiko den jaian  
dugu ele emanen.

**197**

Ondotik joan zaitetze  
nor zuen etxetara,  
eta maita herria  
ukan dezadan plazera.

**laxoki:** aitzakiarik gabe**beha:** entzuten**andana:** mordo**oraino:** oraindino**erremerziatu:** eskertu**ele eman:** hitz egin



**AZKEN KANTOREA****KANTA XIV****Akittolan behera****n1**

Akittolan behera doa aize hegoa,  
Ibarreko jenteer bailakatzez kaskoa.  
Izanik aroa ezti, hotz ala lanhoa,  
Beti hain maite dögün sor lekü xokoa.

**n2**

Bi herriek bata bestearen beharra,  
Horrek deikü ekarriko behar den indarra.  
Jeik hadi Lakarrarra! Txüti Altzaiarra!  
Arra partiaraz Ibar Esküinean sügarra!

**n3**

Aita ama arbasoek lantatü aziak,  
Egün kantorez deikü emaiten lilia.  
Ikusiz zoinen eder dögün gazteria,  
Lüzaz zohardi date Lakarrin zelüa.

**n4**

Gure herriari dogü gük egin batzarri,  
Azken denbora horietan jüntatzez algarri(n).  
Batentako ez düanak emaiten hamarri.  
Biba Ibar Esküina! Gora Altzai-Lakarri!

**AZKEN KANTOREA****KANTA XIV****Akittolan behera****n1**

Akittolan behera doa haize hegoa,  
Ibarreko jendeei balakatzez kaskoa.  
Izanik aroa ezti, hotz ala lainoa,  
beti hain maite dugu sorleku txokoa.

**n2**

Bi herriek, bata bestearen beharra.  
Horrek digu ekarriko behar den indarra.  
Jeiki hadi, lakarrarra! Zutik, altzaiarra!  
Berriz partiaraz Ibarresküinean sugarra!

**n3**

Aita-ama arbasoek landatu haziak  
egun kantorez digu ematen lilia.  
Ikusiz zeinen eder dugun gazteria,  
luzaz zohardi dateke Lakarrin zerua.

**n4**

Gure herriari diogu gük egin batzarri,  
azken denbora horietan jüntatzez elkarrekin.  
Batendako ez duenak ematen hamarri.  
Biba Ibarresküina! Gora Altzai-Lakarri!

**balakatu:** laztandu**kasko:** buru**aro:** eguraldi**zohardi:** oskarbi, izarratu**dateke:** izango da**batzarri:** abegi